

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

GETXOKO ERAKUSLEIHOEN 35. LEHIAKETA, 2025

GETXO ENPRESAK lehiaketa hau deitu du garrantzia emateko, ikustarazteko eta saritzeko kanpoko irudia zaintzen duten tokiko negozioen lana.



PARTE HARTU DEZAKETE:

MERKATARITZAK, OSTALARITZAK eta ZERBITZU ENPRESAK Getxon jarduten badute eta 50 langile baino gutxiago badituzte, elkartearen kide izan edo ez. Negozio bat frankiziaduna bada, parte hartu ahal izango du, baldin eta erakusleio fisiko eta/edo birtualaren proposamena ez badu jatorrizko enpresak egiten, establezimenduak berak baizik.



GAIA:

Librea, edozein gai eta estilo, negozioaren jardura ekonomikoarekin bat etorri behar du. Proposamenak iraingarriak edota bortitzak badira, Lehiaketatik kanpo geratu ahal izango dira.



PARTE HARTZEKO KATEGORIAK:

Saltoki bakoitzak **kategoria batean edo bietan parte-hartu ahal izango du, hau da:**

- **ERAKUSLEIHO FISIKOA:** proposamena saltokiaren kanpoan ikusgarri egon beharko dute, produktuak erakusteko espaziorik ez badago ere (erakusleio tradizionala).

ETA/EDO

- **ERAKUSLEIHO BIRTUALA:** negozioaren webgunea eta/edo sare sozialetako profila.



EPAILEAK:

Getxo Enpresak izendatuko du epaimahaia eta soilik erakusleioetan, diseinuan eta teknologia berrietan adituak diren profesionalak osatuko dute. Lehiaketara aurkezten diren erakusleioak 2025ko abenduaren 10etatik 15tera baloratuko dira. Egoki deritzen sariak eman gabe utz ditzake, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaileetako batek harremanik edo loturarik badu parte hartzen duten negozioetako batekin, ezin izango du aipatutako erakusleioa bozkatu eta gainerako epaimahaiko kideen balorazioak besterik ez dira kontuan hartuko.





EPAILEEN BALORAZIO IRIZPIDEAK

Erakusleio fisikoetan:

- **Proposamena koherentea izan behar du eta enpresak egiten duen jarduerarekin lotura izan beharko du. Puntuazioaren % 50.**
- **Kreatibitatea** (proposamen arriskatua, ezberdina).
- **Egikaritze prozesua** (ideiaren garapena, erabilitako materialak, kalitatea, argiztapena, koloreak eta mugimendua).
- **Multzo estetikoa** (1. itxura, inpaktua, atsegintasuna, ikus-komunikazioa, elementuak espazioan antolatzea eta jartzea).
- **Merkataritza erakarpina** (eragiten dituen sentsazioak eta erosteko/kontsumitzeko eragiten duen grina).

‘Erakusleiorik jasangarrienaren sari berezia’ sari berezian ondokoa baloratuko da:

- o **Material jasangarriak erabiltzea, ingurumena errespetatzen dutenak** (kartoia, led argiztapena, material birziklagarriak, etab.).
- o **Bezeroari aditzera ematea** jasangarritasuna eta ingurumena zaintzea laguntzen duen kontzeptua.

Erakusleio birtualetan - (webguneetan):

- **Edukia** (kalitatea, erabilgarritasuna, irakurtzeko erreztasuna, negozioaren jarduerari lotutako hitz esanguratsuak erabiltzea).
- **Argitasuna** (izaera, irudiak eta animazioak erabiltzea, koloreak, iturriak, espazio-tarteak eta edukiaren antolakuntza).
- **Erabilgarritasuna** (egokitzapen arduratsua, nabigazio intuitiboa, karga denbora, etab.).
- **Kokapena** (bolatzaileetan aurkitzeko erraztasuna, SEO).
- Webgunea erabiltzea **bezeroak erakartzeko eta konektatzeko baliabide** gisa (eduki eguneratuak eta berriak, sare sozialak izatea, blog, kanpaina eta promozioak, harremanetarako galdetegiak eta harpidetza newsletterra).
- * Iaz webgune berarekin aurkeztu bazen eta aldaketarik izan ez badu, -5 puntuarekin zigortuko da.

Erakusleio birtualetan - (Sare sozialak):

- **Edukia** (kalitatea, erabilgarritasuna, irakurtzeko erreztasuna, negozioaren jarduerari lotutako hitz esanguratsuak erabiltzea).
- **Argitasuna** (izaera, irudiak eta animazioak erabiltzea, koloreak, iturriak, espazio-tarteak eta edukiaren antolakuntza).
- **Argitalpenen aldizkakotasuna.**
- **Komunitatea sortzea.**
- Sareak erabiltzea **bezeroak erakartzeko eta konektatzeko baliabide** gisa (estekak webguneetara, hashtag, etiketa, story eta reel bidez osatzea, kanpainak eta promozioak, bezeroekin harremanetan egoteko ekintzak).





HERRI-BOTOA

Aurten **Erakusleio Fisiko Gogokoenaren bozketa herrikoia** egingo da **GERTUapp aplikazioaren bidez**.

BOTOA emateko, besterik gabe, GERTUapp mugikorrean deskargatu, izena eman eta «NIRE ERAKUSLEIHOAREN ALDEKO BOTOA EMAN» sustapen-kanpaina erabili. Kanpaina saltoki parte-hartzaile guztietan gaituta dago.

Erakusleio parte-hartzaile guztien aldeko botoa eman daiteke, baina boto bana bakarrik eta fisikoki negozioetan izan behar da.

Boto-emaile guztien artean sari batzuk zozkatuko dira eta .



SARIAK

ERAKUSLEIHO FISIKOEN SAILKAPEN OROKORRA

1	Bizkaia Zubiaren irudia + Osatu egonaldia, gosaria eta bazkari edo afariarekin eta spa eta masaje 2 pertsonentzako +14 iragarki prentsa + 2 pertsonentzako saskibaolico sarrerak
2	Gabonetako otzara + 8 iragarki prentsa + 2 pertsonentzako operako sarrerak
3	Osatu egonaldia, gosaria eta spa 2 pertsonentzako + Kontserbako produktuen saskia + 6 publizitate modulu prentsa
4	Ibilbidea itsasontzian 2 pertsonentzako iluntzear + Kafe makina eta kafe sorta + 4 publizitate modulu prentsa
5	Gabonetako Otzara + 4 publizitate modulu prentsa + esnekiko produktuen sorta
6	2 pertsonentzako opera txikiko sarrerak + 2 pertsonentzako Lifestyle sesioa (brunch+ aktibitatea) + 4 publizitate modulu prentsa
7	Kirol esperientzia + Aurpegia garbitzeko bonoa + Kafe makina eta kafe sorta
8	2 lagunentzako itsasaldi gidatua + Gorputzeko masajea hartzeko bonua
9	Gabonetako otzara
10	2 lagunentzako txuleta menua + Esnekien sorta
11	Gorputzeko masajea hartzeko bonua + 2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Esnekien sorta
12	2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa
13	Km.0 produktuen lotea
14	4 publizitate modulu prentsan + Kontserbako produktuen maletatxoa
15	Kontserbako produktuen maletatxoa + 2 begirada diseinutarako bonua
16	Spa bonua + 2 lagunentzako haurrentzako operarako sarrerak
17	Kontserba latak + kafe sorta
18	2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa
19	2 lagunentzako haurrentzako operarako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa
20	Esnekien sorta + Kafe sorta



ERAKUSLEI HORIK JASANGARRIENAREN SARI BEREZIA
Getxoko margolana + 3 barietateko kafe pakete 1+ Esnekien sorta+ 4 publizitate modulu prentsan

ERAKUSLEIHO BIRTUALAREN SAILKAPEN OROKORRA

1	Bizkaia Zubiaren erreprodukzioa + 2 lagunentzako ostatua gosariarekin eta bazkari edo afariarekin, spa eta masajea + 14 publizitate modulu prentsan + 2 pertsonentzako saskibaloi sarrerak
2	Gabonetako otzara + 8 publizitate modulu prentsan
3	2 lagunentzako spa eta ostatua gosariarekin + Kontserbako produktuen maletatxoa + 6 publizitate modulu prentsan
4	2 lagunentzako nabigazio lizentzia +4 iragarki prentsa idatzian + Kafe makina eta kafe sorta
5	Gabonetako otzara + 4 publizitate modulu prentsan + Esnekien sorta
6	2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + 2 lagunentzako lifestyle saioa (jarduera + bruncha) + 4 publizitate modulu prentsan
7	6 pertsonarentzako kirol esperientzia + Gorputzeko masajea hartzeko bonua + Begirada diseinurako bonua
8	3 lagunentzako lifestyle saioa (jarduera+ bruncha) + Gorputzeko masajea hartzeko bonua
9	Gabonetako otzara
10	Km.0 produktuen lotea + Esnekien sorta
11	2 lagunentzako masaje bonua + 2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Esnekien sorta
12	2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa
13	Km.0 produktuen lotea
14	4 publizitate modulu prentsan + Kontserbako produktuen maletatxoa
15	Kontserba lata + Begirada diseinurako 2 bonu
16	Kontserba lata + Begirada diseinurako 1 bonu
17	2 lagunentzako opera txikirako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa



SARI BEREZIA ERAKUSLEHIO EZAGUNENARI	
Gabonetako otzara + 8 publizitate modulu prentsan	
1 8	2 lagunentzako haurrentzako operarako sarrerak + Kontserbako produktuen maletatxoa
1 9	2 lagunentzako haurrentzako operarako sarrerak + Esneki sorta
2 0	Kafe sorta + Esnekien sorta

SARI BEREZIA BEZEROEKIN KONEKTATZEN ETA GEHIEN ERAKARTZEN DUEN ERAKUSLEIHO BIRTUALARI	
Getxoko margolana + Kontserbako produktuen maletatxoa 1 + Esnekien sorta + 4 lagunentzako haurrentzako operarako sarrerak	



2 PREMIOS A SORTEAR ENTRE LOS VOTANTES DEL ESCAPARATE POPULAR
1.Lote productos lácteos + 2 entradas Bilbao Basket // 2. Lote productos lácteos + Aurpegiako garbiketa bonoa

-Negozio batek Erakusleiho Fisiko eta Birtualaren modalitatean parte hartzen badu, Sailkapen Orokorreko sari bakarra lortzeko aukera izango du, eta sari hori puntuaziorik handiena lortu duen kategorian emango zaio.

- Sari berezien kategorian parte hartzen duten negozioak Sailkapen Orokorrean ematen diren sarietarako hautagai izango dira.



IZENA EMATEA:

- Izena ematea **DOAKOA** da
- Erakusleihen Lehiaetan parte hartzeko abenduaren 9ko 12:00ak baino lehen eman behar da izena hemen: www.getxoenpresa.com, Getxo Enpresaren bidez (helbide elektronikoa: info@getxoenpresa.com edo Getxo Enpresaren egoitzan (Arene kalea, 22. 48991. 8:30etik 17:00etara, ondokoa adierazita:
 - o Erakusleiho fisikoaren kategorian parte hartuz gero: saltokien helbidea, harremanetarako pertsona, eta "Erakusleiorik jasagarrienaren sari berezia" kategoria berezian parte hartzen badu adierazi. Gainera, epaileei erakusleioaren deskribapen bat eman ahal izango zaio.



- **Erakusleio birtualaren kategorian parte hartuz gero:** parte-hartzen duenaren webgunea eta/edo sare sozialetako profilak. Sare sozialetako nahi beste profil aurkeztu daitezke lehiaketan. Profil bat baino gehiago aurkeztuz gero, guztiak batera baloratuko dira.

*Gainera, berariaz kontrakoa jakinarazi ezean, lehiaketan izena ematean, izena ematen da Bilboko Merkataritza Ganberak antolatutako Bizkaiko Retail Digital 2025eko Sarietan ere; zehazki, honako kategoria hauetan: web korporatibo onena, merkataritza elektronikoko web onena, sare sozialen erabilera onena, txikizkako merkataritza osoena, merkataritza-gune berritzaileena edota saltoki jasangarri onena eta erakusleio onena.



PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK

- Erakusleio fisikoaren kategorian parte-hartzen duten negozioek ondokoa bete beharko dute:
 - **Lehiaketara aurkeztu den erakusleioan proiektuaren kartela erakutsi (hori baita epaileek ebaluatuko dutena), eta kanpotik ikusi ahal izatea.** Kartela ez jartzeak Lehiaketatik kanpo gertatzea eragin dezake.
- Erakusleio birtualaren kategorian parte-hartzen duten negozioek ondokoa bete beharko dute:
 - **Beharrezkoa da helbide honen bidez:** info@getxoenpresa.com **lehiaketara aurkeztu den erakusleioaren argazki bat bidaltzea, horizontalean eta .jpg edo .png formatuetan, kalitate onarekin, abenduaren 9ko 12:00ak baino lehen. Argazkian proiektuaren kartela jarrita dagoela ikusi behar da** lehiaketara aurkeztu den erakusleioan, kanpotik ikusteko moduan. Gomendagarria da argazkia flashik gabe egitea.
- Erakusleio birtualaren kategorian parte-hartzen duten negozioek ondokoa bete beharko dute:
 - **Sare sozialak eguneratuta izatea** sare sozialetan argitalpenak lehiaketan izen-eman baino hilabete lehenago igotzen ez dituzten profilak, kanpoan geratuko dira.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak osorik onartzea dakar. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, eskubidea izango du erabakitzeo oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gairi buruz edo lehiaketaren asmoa betetzen ez duen edozein erakusleioaren parte-hartzeari baztertzeo.
- Parte hartzaileek doan lagatzen diote Getxo Enpresari bidalitako irudiengatik egokitu ahal zaizkien eskubide mota oro; zehazki, ondare izaerako jabetza intelektualeko eskubideak eta erreprodukzioak, distribuzioak, publikoaren esku jartzeak, transformazioak, etab.

GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK zenbakia duenak, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpen bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoen bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta boimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu. Horretarako jo arduradunarengana: Arene kalea 22, Getxo, 48991, Bizkaia. Gutunean "RGPD" (Datuen Babesaren Araudi Orokorra) erreferentzia aipatu beharko duzu.

☐

Berariaz baimentzen dut Getxoko Erakusleiohen Lehiaketari lotutako jakinarazpenak bidaltzea

